



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 24a

75. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00006. Foru-lege proiektua, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan guztira 338.000 euroko aparteko kreditua ematekoa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzendarian jasotzen den erabilera anitzeko kirolgune iraunkorra izateko erabil dezan REFENA. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztu du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/PES-00243. Galdera, jakitekoa ea zein den Lizarrako erditzeak Iruñera bideratzeko arrazoi zehatza. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00245. Galdera, 2023an errenta bermatua jaso zutenei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00246. Galdera, irakasleendako formakuntza-ikastaroei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00247. Galdera, Otik 3 urtera bitarteko zikloaren doakotasunari eta unibertsaltasunari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00248. Galdera, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lanpostuetarako proben egutegiari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00249. Galdera, Guardia Zibilari ematen zaion laborategi-zerbitzuari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00250. Galdera, Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legeari buruzkoa (“Sortu eta Hazi” Legea). Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).

—11-24/PES-00252. Galdera, "Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkartea. Funtzionamendu-gastuak" partida ekonomikoan betetako gastuaren xehakapen osoari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00006. Foru-lege proiektua, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan guztira 338.000 euroko aparteko kreditua ematekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko maiatzaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan guztira 338.000 euroko aparteko kreditua emateko foru-lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan guztira 338.000 euroko aparteko kreditua emateko foru-lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan guztira 338.000 euroko aparteko kreditua ematekoa

ATARIKOA

2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua emateari buruzko apirilaren 25eko 3/2024 Foru Legeak 3. artikuluan jasotzen du Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 13ko 2/2024 Foru Legearen zenbait aurrekontu-partidaren izenen aldaketa.

Halere, aurrekontu-partidaren izenen aldaketa jasotzeaz gain, 3. artikuluko horrek partidaren kodeak aldatzen ditu, eta, beraz, partida berriak sortzen ditu.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, Lurralde Kohesiorako Departamentuak eta Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zenbait txosten igorri dituzte, 2024ko aurrekontuan dagokien gastua gauzatzeko aparteko kreditua onartu beharrez egoki diren aurrekontu-partidak hornitzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada horretarako krediturik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat emateko. Orobat, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal dela, Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege honen xedapenak direla eta berriaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

1. artikulua. 3/2024 Foru Legearen 3. artikulua indargabetzea.

Indarrik gabe uzten da apirilaren 25eko 3/2024 Foru Legearen 3. artikulua. Foru lege hori 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua emateari buruzkoa zen.

2. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

2024ko aurrekontuan 338.000 euroko aparteko kreditua ematen da, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontu-partida hauetan aplikatuko da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
210001 21300 7609 2616T0 Armañantzasko Udalarentzako transferentzia: eraikinak egokitzea tabernarako eta dendarako	80.000
210001 21300 7609 2616T1 Barañaingo Udalarentzako transferentzia. Kirol Etorbideko luminariak aldatzea	60.000
210001 21300 7609 2616T2 Hitzarmena Murchanteko Udalarekin, San Isidro eta Virgen de Mis Manos kaleetako zoladura konpontzeko	30.000
210001 21300 7609 2616T3 Andosillako Udalarentzako transferentzia: hiri orubea hobetzea eta Felipe de Arín kalean pergola bat eraikitzea	30.000
A21001 A2400 6054 332202 Tuterako liburutegi publikorako ekipamendua	3.000
A50000 A5000 7609 3361E8 Erriberriko Udalarentzako transferentzia. Frontoia eraberritzea	60.000
A50003 A5200 4819 336113 Eguesibarreko Saskibaloiko Taldearentzako dirulaguntza: gizonezkoen saskibaloiko proiektu egituratua	50.000
A50003 A5200 4819 336114 Trikideak kirol klubarentzako dirulaguntza: 2024ko Espainiako Triatloi eta Aquabike txapelketaren antolakuntza	25.000

3. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

338.000 euroko aparteko kreditua honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kargura finantzatuko da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
210001 21300 7609 2616L3 (E) Armañantzasko Udalarentzako transferentzia: eraikinak egokitzea funtsezko zerbitzuetarako	80.000
210001 21300 7609 2616M5 (E) Barañaingo Udalarentzako transferentzia. Departamentuen Etorbideko luminariak aldatzea	60.000
210001 21300 7609 2616P4 (E) Hitzarmena Murchanteko Udalarekin, udalerrira oinez sartu ahal izateko obrak egiteko	30.000
210001 21300 7609 2616O5 (E) Andosillako Udalarentzako transferentzia: hiri hobekuntza eta interrelaziorako espazioak sortzea. Naturaren txokoa	30.000
A21001 A2400 7609 332203 (E) Tuterako liburutegiarentzako dirulaguntza, erabilera anitzeko aretoa egokitzeko	3.000
210001 21300 7609 2616M4 (E) Hitzarmena Erriberriko Udalarekin. Frontoia eraberritzea	60.000
A50003 A5200 4819 336111 Nafarroako Saskibaloiko Federazioarentzako dirulaguntza gizonezkoen saskibaloiko talde egituratua proiektua abian jartzeko	50.000
A50003 A5200 4819 336112 (E) Nafarroako Triatloi Federazioarentzako dirulaguntza: 2024ko Espainiako Triatloi eta Aquabike txapelketaren antolakuntza	25.000

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-24/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzendarian jasotzen den
erabilera anitzeko kirolgune iraunkorra izateko erabil dezan REFENA**

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzendarian jasotzen den erabilera anitzeko kirolgune iraunkorra izateko erabil dezan REFENA.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroako Azpiegituren 2022-2025 aldirako Plan Zuzendariaren konklusioen atalean (32. orrialdea) esaten da Nafarroako kirolak duen defizit handi bat dela zenbait kirol federaziok ez daukatela gune publikorik: esgrima, arku-tiroa, mahaitenisa, xakea, gimnasia, karatea eta taekwondoak,

besteak beste. Federazio horietaz gain, kirol ego-ituko federazioa aipatu beharra dago.

Planaren 43. orrialdean konponbide modura proposatzen da Nafarroako kirolarendako erabilera anitzeko kirolgune iraunkorra paratzea.

Planak hiru aukera ematen ditu:

A) Eraikin berri bat.

B) Dagoen ekipamendu publiko bat egokitzea.

C) Beste gune bat alokatzea.

Kirolgunerik ezaren arazo hori ikusita, planak gomendatzen du aintzat har daitezen jada egon badauden instalazioak, inbertsio publikoak minimizatzeko.

2023ko otsailean, NICDO sozietate publikoak Refena azoka-eremuaren titulartasuna berreskuratu zuen; instalazio horrek 7.000 metro koadro baino gehiago hartzen du.

UPNk proposamen zehatz bat egin nahi du, xume eta posiblea: kirol azpiegituren plan zuzendarian proposatzen den erabilera anitzeko kirolgune iraunkorrerako baliatzea 7.000 metro koadro horiek –dena ez bada, parte bat–.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu kirol azpiegituren plan zuzendarian proposatzen den erabilera anitzeko kirolgune iraunkorrerako balia dezan Refena.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00243. Galdera, jakitekoa ea zein den Lizarrako erditzeak Iruñera bideratzeko arrazoi zehatza*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, jakitekoa ea zein den Lizarrako erditzeak Iruñera bideratzeko arrazoi zehatza.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PEI-00142 informazio-eskariaren bidez, parlamentari naizen honek taula bat dakarren eranskin bat lortu nuen. Taula horretan, García Orcoyen ospitalean artatu ez ziren 11 erditze ageri dira Lizarrako osasun-barrutian.

Geroago, 11-24/PES-00193 galderaren bidez itaundu nuen ea zer arrazoi zehatz egon den "PEI-00142 informazio-eskariari emandako erantzunaren eranskinean jasota ageri diren erditzeetako bakoitza Iruñera bideratzeko".

Excel taula bat jaso nuen 11-24/PES-00193 galderaren erantzun modura, zeinean 18 erditze jasotzen baitira, baina ez da inolako aukerarik ematen jakiteko zeintzuk diren, zehatz-mehatz, PEI-00142 informazio-eskariari erantzuteko eranskinean ageri diren 11 erditzeak, zeren eta zenbaitetan datak ere ez baitatoz bat.

Hortaz, berriro galdetzen dut ea zer arrazoi zehatz egon den PEI-00142 informazio-eskariari emandako erantzunaren eranskinean jasota ageri diren erditzeetako bakoitza Iruñera bideratzeko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00245. Galdera, 2023an errenta bermatua jaso zutenei buruzkoa*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, 2023an errenta bermatua jaso zutenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zergatik murriztu da 2023an errenta bermatua-
ren jasotzaileen kopurua?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00246. Galdera, irakasleendako formakuntza-ikastaroei buruzkoa*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, irakasleendako formakuntza-ikastaroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri darabil gogoa-
n irakasleen formakuntza-ikastaroen kalitatea
bermatzeko eta ikastaro horiek irakasleen premia
pedagogikoen eta espezializazio-premien arabe-
rakoak izan daitezen?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/PES-00247. Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko zikloaren doakotasunari eta unibertsaltasunari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, 0tik 3 urtera bitarteko zikloaren doakotasunari eta unibertsaltasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Otik 3 urtera bitarteko zikloa eskatzen duten guztiari doakotasuna eta unibertsaltasuna bermatzearen alde al dago Nafarroako Gobernua? Hala baldin bada, nola bermatuko du hori?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/PES-00248. Galdera, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lanpostuetarako proben egutegiari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lanpostuetarako proben egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Eneka Maiz Ulaiarrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako gal-

dera hau egiten dio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Nafarroan enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan, azaroaren 3ko 245/2022 Ebazpenaren bidez onetsi ziren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen 211 lanpostu, atzerriko hizkuntzaren eskakizuna dutenak, merezimendu-lehiaketaren salbuespeneko sistemaren bidez betetzeko hautapen prozedurak. Eta azaroaren 3ko 246/2022 Ebazpenaren bidez, berriz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen 141 lanpostu, atzerriko hizkuntzaren eskakizuna dutenak, oposizio-lehiaketaren bidez bidez betetzeko hautapen prozedurak onetsi ziren.

Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren martxoaren 7ko 75/2024 Ebazpenan, maisu-maistren kidegoan sartzeko prozedu-

rako aurkezpen-ekitaldia egiteko datak eta oposizioaldiko lehenbiziko probaren data argitaratu dira (prozedura hori urriaren 27ko 286/2023 Ebazpenaren bidez onetsi zen).

Ezarri den egutegiaren arabera, proba bakarra eginen da atzerriko hizkuntzako lanpostuetarako. Egun bakarra finkatu da, ordea, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lanpostuetarako probak egiteko: ekainaren 1a euskarazko lanpostuetarako, eta ekainaren 2a gaztelaniazko lanpostuetarako.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lanpostuetarako eskatzen den titulazioa ezberdina da. Baina bi betekizunak betetzen dituzten izangaiek ezin dituzte egin bi kidego horietarako probak, egun berean eginen direlako. Bigarren

Hezkuntzako maisu-maistren kidegoko eta irakasleen kidegoko lanpostuetarako prozedurak egun diferenteetan egin ohi dira.

Kontuan hartuta egun berean eginez gero mugatu egiten dela izangaien aukera-berdintasuna irakasle-lanpostu bat lortzeko, honako galdera idatzi honi erantzutea eskatzen dut:

Hezkuntza Departamentuak zer eginen du bermatzeko Lehen Hezkuntzako nahiz Bigarren Hezkuntzako lanpostuetan sartzeko betekizunak betetzen dituzten izangaiek bi hautapen-prozesuetara aurkeztu ahal izatea?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/PES-00249. Galdera, Guardia Zibilari ematen zaion laborategi-zerbitzuari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Guardia Zibilari ematen zaion laborategi-zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Laborategi-zerbitzurik ematen al dio Nafarroako Gobernuak Guardia Zibilari (SEPRONARI), salaketen ondorioz jasotako ur-laginak direla-eta, Nafarroako lurraldean uren kutsadurako espedienteetarako?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00250. Galdera, Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legeari buruzkoa ("Sortu eta Hazi" Legea)

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legeari buruzkoa ("Sortu eta Hazi" Legea).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legea ("Sortu eta Hazi" Legea) dela-eta:

1. Zertan eragiten die Nafarroako saltokiei?

2. Zer epe aurreikusten duzue lege horretan ezarritakora egokitzeko (jarduera ekonomikoen Ogasunarekiko zuzeneko lotura, sistemaren hautaketa, eta abar)?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00252. Galdera, "Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkartearen Funtzionamendu-gastuak" partida ekonomikoan betetako gastuaren xehakapen osoari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, "Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkartearen Funtzionamendu-gastuak" partida ekonomikoan betetako gastuaren xehakapen osoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024ko apirilaren 8an erregistratu nuen 11-24/PEI-00355 informazio-eskarian honako hau eskatu nuen: "Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkartearen Funtzionamendu-gastuak" partida ekonomikoan (200.000 €) 2023an egindako ekintza guztiak, xehakaturik.

Nafarroako Gobernuak eman zidan erantzunean, ondotik heldu den taula ageri zen, partida ekonomikoa xehakatzeko:

4. Gastos ejecutados a fecha 22/04/2024

Concepto	Gasto con IVA
Gastos personal	
Nóminas y seguridad social investigadores julio'23-enero-24	34.615,84
Servicios de seguimiento de cultivo Josenea	4.999,72
Subtotal personal y servicios	39.615,56
Gastos viajes y dietas	
Subtotal viajes y dietas	2.364,08
Soporte técnico	
Soporte científico UPNA	11.677,50
Soporte científico IDAB-CSIC	13.999,46
Subtotal soporte técnico	25.676,96
Directo	
Asesoría jurídica requerimientos AEMPS	9.680,00
Semillas, materiales de cultivo	8.566,08
Sistema de seguridad finca Borda Blanca	34.067,00
Subtotal gastos directos	52.313,08
TOTAL	119.969,68

SAPen partida ekonomikoak 2023an izan duen betetze mailari buruzko kontsulta egitean, sistemak dio aurrekontuan jasotakoaren % 100 bete zela; hau da, 200.000 €.

1. Emandako taulan zergatik ez da jaso 200.000 € horien xekakapen osoa?

2. Zein da 2023an betetako 200.000 € horien xehakapen zuzena?

3. Zenbat ikertzaile kontratatu ziren? Iker-tzaileek non egin dute beren lana?

4. Ikertzaile horiei ikerketa honetarako soilik egin al zaie kontratua? Zein da horien kontratuen iraupena?

5. Zertan datza aurrekontuak jasotzen duen "Borda Blanca finkaren segurtasun-sistema"?

6. Partidak 150.000 € dauka 2024rako. Nafarroako Gobernuak zer xehakapen-aurreikuspen darabil partida horretarako?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

